



MARTXOAK 8 URRATS BAT GEHIAGO

Emakumeen Nazioarteko Eguneko greba feministak jendetza bildu zuen parekidetasunaren alde; manifestazioak egin ziren herri bat baino gehiagotan «heteropatriarkatu kapitalistari planto» egiteko // 4-5

Aske utzi dute Ibarrako Maite Aranalde presoa

Frantziako kondena
bukatuta, hainbat
euroaginduren
ebazpenen zain zegoen // 2

‘Energiaren superheroia izateko gida’, mundu garbiago bat egiteko

Energia aurrezteko moduak biltzen dituen
liburuxka argitaratu du Tolosaldea Garatzen
agentziak; ikasleen artean banatuko dute // 3



Liburuaren aurkezpena atzo, Abaltzisketako eskola txikian. E. MAIZ



Audi A1 Sportback berria.
Epic Mode On.

Autowag Tolosa
Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
943 67 35 81

Audi A1 Sportback 30 TFSI 85 kw (116 CV) 6 vel. berria. Karbono dioxido igorpena (g/km): 108tik 111ra. Kontsumoa (l/100km): 4,8tik 4,9ra.



Aske utzi dute Maite Aranalde ibartarra

Erredakzioa Ibarra

Maite Aranalde euskal preso ibartarraren senideek atzo jaso zuten bere kaleratzearen berri.

Hasiera batean atzo edo gaur aske geratuko zela esan zien abokatuak, baina ondoren, Soto Del Real espetxetik bertatik atzo kaleratuko zutela jakinarazi zieten senitartekoei.

Egunkari hau ixterako oraindik ez zegoen aske.

Abokatuak baieztatu zion albiste familiari, eta «bere aurkako frogarik ez dagoela» azaldu zuten senideek.

EUROAGINDUAK

Maite Aranalde 2018ko irailaren 20an Espainiaratu zuen Frantziak. Ibartarraren aurka

hiru euroagindu zabaldu zituen Espainiako justiziak. «Horietatik bi bertan behera geratu ziren, eta hirugarrena aztertzen ari ziren une honetan», azaldu zuen familiak. «Instrukzio fasea zeuden, frogak biltzen fiskalari aurkezteko, baina abokatuak esan digunez, ez dago Maiteren aurkako frogarik eta ondorengo orduetan aske gera-

tuko da», gaineratuz. Aukera horren jakitun zirela ere esan dute senitartekoei, «nahiz eta Espainiako justiziarekin gauzak diren bezala izaten dira; arriskuak ere ikusten genituen. Beldur handia genuen, gauzak beste era batera joango ote ziren, baina aldi berean, esperantza ere bagenuen».

2005. urtean atxilotu zuten

Aranalde Le Cap d'Adge herrian (Frantzia), ETako kide izatea egotzita, eta 2009ean askatu zuten. 2010ean atxilotu zuten berriro. Zortzi urte eman zituen Frantziako espetxeetan. Iraila bukaeran bete zuen Frantziako kondena eta ordutik Soto del Real (Madril) espetxean egon da euroaginduen ebazpenen zain.

Tolosako Musika Banda, Udal Musika Banda izatera igaroko da

Udalak eta musika bandak 25 urterako kontratu berria sinatu dute. Euskararen Mahaia osatzea eta bi zerga ordenantzaren aldaketak ere onartu ziren otsaileko osoko bilkuran

Josu Artutxa Dorronsoro Tolosa

10 puntuko gai zerrenda izan zuen hizpide udalbatzak, otsaileko osoko bilkuran. Lehenik, 19.890 euroko mailegu osagarria onartu zuen udalak, aurrekontuan ezarpenak egin behar izan dituztelarik. Iurreamendi egoitzara bideratutako aurrekontuari dagokio kopururik handiena: 14.650 euro. Kopuru osoari, zenbait diru-partida ere badagozkio: landa auzoetako taxi zerbitzuarena, 1.000 euro; Udal Musika Bandarena, 1.590 euro; eta hondakin bilketara zuzendutako aurrekontuarena, 2.650 euro.

Horiek horrela, Tolosako Musika Bandaren kontratazioaren prozedurari hasiera eman zion udalak. Aurrerantzean, Udal Musika Banda izatera igaroko da, bi alderdien arteko erlazio juridiko berri bat adostu ondoren. Hogeita bost urterako kontratua onartu zen beraz, urteko 147.000 euroko ekar-

penarekin, eta herriari zuzendutako emanaldiak eta zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko.

Hitzarmena zeharkakoa izango da, zerbitzu bidezko kontratu baten bitartez. Olatz Peon alkateak adierazi zuen Udal Musika Banda herrian «guztiz errotua» dagoen zerbitzua dela. «Bandak bere historian zehar kultur arloan funtsezko garrantzia izan du, gure nortasunaren parte da, eta herriaren sormen kultural zein musikalean zeresan handia du». Bestetik, EH Bilduko Igor Ezenarro zinegotziak aipatu zuen, «kostata, baina musika bandak dituen helburuak lortzen ari gara, eta guztia legealdia bukatu aurretik prest izatea nahi dugu».

HARAGI 2019KO PREZIO IGOERA

Bi zerga ordenantzaren aldaketak ere onartu ziren bilkuran. Aurrena, zerbitzuak eman eta udal jarduerak burutzeagatik, Haragi



Udalbatzak Euskararen Mahaia aldeko mozioa onartu zuen unea. J.A.

2019 jaialdiko otorduaren prezioaren igoera onartu zen, aho batez. 5 eurotan igoko da, 45 eurotatik, 50 eurotara. Haragiaren barruko asteburu osoko festa maiatzaren 9tik 12ra bitarte ospatuko da aurren.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza aldaketan bi hobari berri ere onartu ziren. Lehen, Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuena: %60ko hobaria.

56 etxebizitza, baserri eta iturriren zerrenda berri bat egin du udalak, eta horien artean aurkitzen da Fronton Kafetegia. EH Bilduko ordezkariak, ordea, ez zuten begi onez ikusi beherapen bat aplikatzea, hura ustiatzeko lehia-ketaren prozesua martxan dagoen honetan. «Korrika eta presaka» aplikatu dela adierazi zuten. «Hori lehiaketara aurkeztu den enpresa pribatu baten eskaera izan daiteke, eta hori dela eta, udal aurrekontuetan geratuko ez litzatekeen diru kopuru bat aurreztuko luke». Ondorioz, EH Bilduk, gaia mahai

gainean uzteko eskaera egin zuen, «azterketa sakonago bat eskatzen duelako», eta aurka bozkatu zuen.

Udal Gobernuako ordezkarien izenean, Peonek eta Begoña Tolosa zinegotziak, nabarmendu zuten beherapena ez zaiola Fronton kafetegia aplikatzen, bereizketa bat arintzeko egingo dela esan zuten. % 60ko beherapen hori Alde Zaharreko eraikin askotan aplikatzen dela, eta bertatik kanpo, badi-rela beste eraikin asko, ondare urbanistikaren parte direnak, eta irizpide bera ezarri beharko litzaikeela.

Eraikuntza zergen gaineko ordenantza aldaketan ere onartu zen hobaria: % 95ekoa. Hori, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko eraikuntza berriko obrak interes berezikoak edo udal onurakoak diren izendatzean eramango da aurrera.

EUSKARA ETA SAHARA

Tolosaldeko euskalgintzan gobernantza eredu berria izango da aurrerantzean, Tolosaldeko Euskararen Mahaia osatzea onartu baitzen. Mahai hori, politikari, teknikari, kazetari, euskaltzale eta adituek osatuko dute, estrategia eta ekarpen berritzaileak egiteko helburuarekin, euskara eskualdeko herritarren lehentasunezko hizkuntza izan dadin.

Era berean, Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 43. urteurreneko mozioa ere onartu zen, saharar lurraldeko giza eskubideen urraketa salatzeko.



ZUZENKETA

Martxoaren 8ko astekariko 6-7 orrialdeetan Ana Etxezarreta zaintza langilea elkarriketatu zuen ATARIA-k. Zaintza erdigunean jarri dute galderan «(...) Esaterako, haur txikiak dituztenentzat, ez dute erraztasunik ematen (...)» irakurri ahal zen, baina zera esan nahi zuen: «Haur txikiak dituztenei erraztasunak emanagatik, eta murrizpena hartzeko arazorik ez izan arren, ez dute konpontzen arazoa eta kosta egiten da kontziliazioa aurrera eramatea». Barkatu eragozpenak.

Berdintasuna eta genero ikuspegia jorratzeko bigarren saioa

E. Maiz Amezketak

Amezketako Udalak martxan jarri ditu Berdintasuna eta Genero Ikuspegiaren gaia jorratzeko saioak, eta bigarren saioa bihar izango da. 16:30ean, kultur etxe-ko bigarren solairuko erabilera anitzeko gelan elkartuko dira, eta Amezketako herritar guztiak, gizon nahiz emakume, parte hartzera animatu nahi dituzte.

Aurreko saioan ateratako ondorioak oinarri hartuta hasiko dute saioa. *Zer behar dugu Amezketako emakumeok parte hartzeko? Nola sustatu dezakegu?* Galdera horiek abiapuntu hartu, eta Amezketari dagokion hausnarketak propioa egitea izango dute helburu orokorra. Horretarako norberak izan dituen bizipenetatik abiatuta, Amezketak herrian jarduera soziopolitikoari, herri-gintzari edo herri mailari begira jarriko dira, eta indartu edo saihestu nahi diren elementu kolektiboak identifikatzeko saia-kerak egingo da. Ondoren, arlo ezberdinetan (antolakuntza, parte hartzea, egitaraua, zaintza edo indarkeria sexista) garatu nahi-ko litzatekeena kokatu, eta lortzeko estrategiak marrazten has-tea izango dute helburu.

Guzti hau bideratzeko, Emag-in ikerkuntza eta formakuntza feministako elkarteko ordezkaria bertan izango da.

Energia aurrezten ikasteaz gain, praktikan jartzeko gida

Tolosalde Garatzenek 'Energiaren superheroia izateko gida' liburuxka aurkeztu du Abaltzisketako eskola txikian; Izpi pertsonaiak lagunduko die haurrei superheroi izaten

Eneritz Maiz Etxarri
Abaltzisketa

Tolosalde Garatzen garapen agentziak, atzo, Abaltzisketako eskola txikian aurkeztu zuen *Energiaren superheroia izateko gida* liburuxka. Tolosaldea Garatzenen ustez, «teoria praktikan jartzea da ikaste-ko modurik eraginkorrena», eta horixe da Izpi superheroiaren gidarekin lortu nahi dutena.

Tolosaldeko ikasleei banatuko zaien liburuxkak, energia aurrezteko erronkak luzatuko dizkie haurrei. Eta horiek bete beharko dituzte ikasleek, Izpirekin batera, energiaren superheroiak bilakatzeko. Eskualdeko ikastetxe guztietara iritsi nahi dute, eta Lehen Hezkuntzako ikasleei bideratutako ekimena da.

Gida horretan haur bakoitzak superheroi izen bat asmatu beharko du, eta mundu garbiago bat izateko bidean Izpi-ko luzatutako erronkak burutu beharko ditu egunero-egunero. Gailu elektronikoak itzaliz, oinez nahiz bizikletaz mugituz edota ura aurreztuz, superboteak bereganatzen joango dira haurrak, eta guraso edo tutoreek hala egiten ari direla ziurtatuko dute as-



Superheroien kapa eta antifaza lortzeko liburuxka osatu behar dute. E. MAIZ

tebetez, liburuxkan zигilua botaz. Behin proba guztiak beteta, haurrek superheroi kapa eta antifaza jaso ahal izango dituzte.

Superheroien kuadrilla handia osatu nahi dute Tolosaldeko neska-mutilekin, baina «lehen misiorako ezin gara 300 baino gehiago izan», azaldu dute. Hor-taz, «superheroien izen nahi badu-zu, bete proba guztiak ahal bezain pronto, eta batu zaitez». Kili superheroia izan zen Abaltziske-tako eskolan, eta Kilik, superhe-roi izateko ipuin kontaketa bidez eman zizkien azalpenak Abal-tzisketako ikasleei. Esaterako, uraren eta argiaren erabilera eta kontsumoa izan zituen hizpide.

MUNDU GARBIAGO BATENGATIK
Mundu garbiago bat ez dela lor-tzen adierazi dute Tolosaldea Garatzenetik; baizik eta, «egin, egiten da».

Guraso eta helduentzat ere kontzientiazio eta hausnarke-tarako arrazoia izatea bilatzen du Tolosaldea Garatzeneko kan-paina honek. Emaizak eskura-tzeko guztien inplikazioa beha-rrezkoa dela azpimarratzen du Izpi superheroien gidak, eta «ez ahaztu energia aurrezte-a de-non ardura dela».



ZARENA ZARELAKO

Zarena Zarelako festa egin zuten igande arratsaldean, Orendainen. Azken urteetan, herriko haur jaioberriei ongi-egiteko ohitura hartu dute, eta iaz jaio zen haur bakarrari egin zioten ongi-egitea, kasu honetan. Elene izan da 2018an Orendainen jaiotako haur bakarra, eta bera eta bere familia izan ziren atzokoan herritarrengandik oparia jaso zutenak. Jarraian, guz-tiek merienda eder batekin osatu zuten eguna. ATARIA



ETXABURUA, TXAPELDUNA

XXVI. Txapel Eguna ospatu zuten Zizurkilen, eta Alatzne Etxaburuaren eguna izan zen larunbatekoa. Herri kirolen munduari egin dion ekarpena-gatik, aurten, berari jarri diote txapela. Etxaburuak, Zizurkilgo festei hasie-ra eman eta suzuria botatzeko ohorea izango du Amabirjin jaietan. 80 lagun elkartu ziren afarian, eta iazko txapel-dunak, Xabier Pellejerok jarri zion txape-la. Oso eskertuta eta hunkituta jaso zuen, eta «Zizurkilgatik ez balitz, ez zela herri kirolean hasiko eta ohore handia dela» azpimarratu zuen. ATARIA

Inoizko jendetsuena

Martxoaren 8an, Tolosaldeko mugimendu feministak grebara deitu zituen eskualdeko emakumeak eta mobilizazio jendetsuak egin ziren

Erredakzioa Tolosaldea

3.500 pertsona zenbatu zituzten ostiral eguerdian Tolosan egin-dako manifestazioan; auto karabanen, berriz, 100 emakume bildu ziren; Oargi elkartearen gizonetako antolatutako zainketa gunean 22 haur izan ziren; eta bazkari autogestionatuan, 120 emakume elkartu ziren. Zifretatik harago, «heteropatriarkatu kapitalistari planto» egiteko jarraera hartu zuten milaka emakumeek Tolosaldean joan den ostiralean.

Tolosaldeko Asanblada Feministak indarkeria matxistari eta heteroaraurik gabeko bizitzaren anitzak aldarrikatu zituen Emakumeen Nazioarteko Eguna-ekin batera egindako greba feministan: «Libre izan nahi dugu, ez

ausartak!», esan zuten. Hala, emakumeak «berbiktimizatzen dituen prozedura judizialekin amaitzea, eta indarkeria matxistari aurre egiteko neurriak hartzea» premiazkoa dela esan zuten. Gizonei mezua ere luzatu zieten: «Gizonezko sentitzen zaretenei, zuen maskulinitatea berrikustea dagokizue, eta eredu berriak sortzea, indarkeria eta dominazio jarreretatik at». Eta, hezkuntza, berriz, parekidea izatea exijitu zuten, «baita testuliburuetan emakumeak eta hauen ekarpenak ikusgarri egitea ere».

EMAKUMEEN ESKAERAKA

Etxeko lanen aitortza eta emakume baseritarren estatutua gartzeta eskatu zuten emakumeek ostiraleko mobilizazioetan. Emakume pentsiodunen %68k



Goizeko manifestazio jendetsuarekin ostean, ekitaldiak izan ziren Trianguloan eta mobilizazioa egin zen arratsaldean. I.T.

800 eurotik beherako pentsioa jasotzen duela gogoratu zuten, eta hamarretik zortzik 600 euro baino gutxiagoko pentsioa jasotzen duela Euskal Herrian. «Honek guztiak ondorio larriak dakartza adineko emakume askorentzat: pobrezia, indarkeria, isolamendu soziala, kolektiboaren ikusezintasuna, infantilizazioa, mespretxua eta erakundeen arreta falta», adierazi zuten.

Zaintza erdigunean jartzea aldarrikatu zuten, zerbitzu sozial, publiko, doako eta unibertsalekin batera. «Arrazakeriarik eta gerrarik gabeko bizitzak! Kolonialismoaren aurrean, gure gorputza, lurraldea eta lurra defendatu ditzagun», esan zuten. Era berean, «erraustegia, frackinga, AHT eta lurra suntsitzen duten hainbat eta hainbat proiektu», bizitza erdigunean lemaekin ez

direla «bateragarriak» adierazi zuten.

Kalera ateratzeko eguna izan zen ostiralekoa «Honek, ordea, urteko egun guztiak hartu behar ditu, 365ak. Urte guztiko lana da, emakume guztiona. Bizitzak erdigunean jartzeko, eguneroko lana kontutan izan behar da», aipatu zuen Eli de Arriba Tolosaldeko Asanblada Feministako ki-deak.



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12- 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com



AIZTONDOKO EMAKUMEAK, ZUTIK

Aiztondoko mugimendu feministak manifestazioa antolatu zuen ostiralean, Villabonako Malkar plazan hasi eta Zizurkilgo Joxe Arregi plazara. Ehunka emakume batu ziren eguerdian. «Heteropatriarkatu kapitalistari planto eginez, gaurkoan ere bizitza erdigunean jartzen ari gara», horrela adierazi zuten amaierako ekitaldian. Bazkari autogestionatua egin zuten ondoren eta elkarrekin Donostiako manifestaziora gerturatu ziren arratsaldean. J.M.



TXOOOTX
ANIMATU!!
URTARRILAK 19
APIRILAK 27
TOLOSATIK AUTOBUSA

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM

Egindako lanagatik aitortza jaso dute

Villabonan lehen udal hauteskunde libreetan hautatutako bi emakumezko zinegotziak omendu zituzten larunbatean eta Orendainen emakume baserritarrei egin zieten aitortza

J. Miranda / E. Maiz

1979ko apirilaren 3an egin ziren frankismoaren osteko lehen udal hauteskunde libreak eta Bittori Zeberio eta Arantxa Sorondo zinegotzi atera ziren. Demokrazia aroko herriko lehen bi emakume zinegotziak izateagatik aitortza jaso zuten larunbatean Amasa-Villabonako udale-

txean. Agurra dantzatu zieten bi zinegotziei eta lore sorta bana eman zieten, opariekin batera.

EMAKUME BASERRITARRAK

Garai ezberdinetako kantuak baliatuz, belaunaldiz belaunaldi emakumearen bilakaera nola aldatzen joan den irudikatu zuten larunbatean Orendainen, *Emakumea eta jaiak* saioan.

Herriko emakumezko baserri-tarrak omendu zituzten ondoren: Geno Mendiburu, Miren Irastortza, Pilar Maiz, Maria Bautista Agirrezabala eta Kontxi Apalategi; omenalditxoaren zati bat Julian Urkola eta Manuel Belokirentzat ere izan zen. Guzti hauek kontatuko gertaerekin, *Iraganera parada* erakusketa jarri dute udaletxeko arkupeetan.



Ekzerrean Zeberio eta Sorondo, Izagirre alkatearekin; eskuinean, Orendaingo omenaldiaren une bat. J.M. / E.M.



EMAKUMEAK ETA KIROLA HIZPIDE

Maidier Mendizabal, Irene Caminos, Eukene Larrarte eta Irati Larrañaga jarri zituen hizketan, larunbatean, Tolosaldeko Arraun Klubak. Garrantzitsuena, gustatuz gero, kirola egitea dela aldarrikatu zuten, baina oraindik ere, emakumeen kirolean egiteko asko dagoela azpimarratu zuten. Olatz Artola Apeztegiak gidatu zuen solasaldia eta TAKEk Zerkausi azpian duen egoitzan aritu ziren solasaldian. E. MAIZ

Ogi-Berrik ireki zuen 30. Lilatoia

Ainhua Artolazabal eta Leire Olaberria arduradun dituen taldeak jaso zuen omenaldia igandean; haien atzetik, 6.225 emakume atera ziren lasterka

Erredakzioa

Giro ederrean egin zuten igandean, Donostian, aurtengo Lilatoia. 30. ekitaldia zuen aurtengo lasterketak, eta, hori dela eta, lelo berezia eraman zuen: 30 urte berdintasunaren sustraiak sendotuz.

Inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren lasterketan, orotara, 6.225 emakume eta beste hainbeste edo gehiago aritu ziren bide ertzetatik animatzen. 4,7 kilometroko ibilbidean, musika eta aldarrikapenak nagusi ziren.

Igandean, Ogi-Berri Gipuzkoa txirrindulari taldekoek jaso zuen antolatzaileen aitortza.

Ainhua Artolazabal eta Leire Olaberria taldearen sustatzaileak bertan izan ziren eta txirrindulariek izan zuten aurtengo Lilatoia abiatzeko ohorea.

SARI BANAKETA

Bigarren urtez jarraian Lorea Ayala donostiarrak irabazi zuen igandeko Lilatoia, ibilbidea 17 minutuan osatuz.

Atzetik milaka emakume sartu ziren Boulevardeko helmugan, horietako asko Tolosaldeko korrikalariak.

Eguna borobiltzeko, sari banaketaren ondoren, 12:30etik aurrera, trikitilariak girotutako *lilapotea* egin zuten Donostiako kaleetan zehar.



Igandeko Lilatoian milaka emakumek hartu zuten parte. ATARIA

zozketak

Atarikideentzat
lau sarrera ditugu
'Musua'
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
bi sarrera saio bakoitzerako zozketan

Martxoak 16, larunbata 16:00 eta 18:30 • Tolosa, Leidor antzokian.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

21. jardunaldia

Lauburu-Patatas Gomez	5-4
Cuellar Cojalba-Laskorain	4-1

Sailkapena

4. Lauburu Ibarra	42p
10. Laskorain	25p

Hurrengo jardunaldia

San Juan (3)-Lauburu (4)
Laskorain (10)-Sala Quinto (15)

GIPUZKOAKO SENIORRAK

12. jardunaldia

Samaniego Orixe-Lauburu	0-12
Idiazabal-Anoeta F.T.	6-2

Sailkapena

2. Lauburu Ibarra	28p
7. Anoeta	7p
8. TEEP Samaniego Orixe	0p

Hurrengo jardunaldia

Anoeta F.T. (7)-Samanie. Orixe (8)
Lauburu (2)-Garoa Taberna (5)

Boleibola

EUSKAL LIGA, BIGARREN MAILA

21. jardunaldia

Getxo-Tolobolei Bidebide	2-3
--------------------------	-----

Sailkapena

6. Tolobolei Bidebide	14-7
-----------------------	------

Hurrengo jardunaldia

Tolobolei Bidebide (6)-Astillero (1)

Futbola

EUSKAL LIGA

24. jardunaldia

Tolosa CF-Arratia	1-1
-------------------	-----

Sailkapena

1. Tolosa CF	59p
--------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Pauldarrak (4)-Tolosa CF (1)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

25. jardunaldia

Tolosa CF-Deusto Donostia	2-2
---------------------------	-----

Sailkapena

3. Tolosa CF	48p
--------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Amaiak Bat (4)-Tolosa CF (3)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

21. jardunaldia

Urola-Tolosa CF	1-0
-----------------	-----

Sailkapena

6. Tolosa CF	29p
--------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF-Real Sociedad

ERREGIONAL PREFERENTEA,

LEHEN MULTZOA

23. jardunaldia

Orioko-Tolosa CF 'B'	0-1
Billabona KE-Trintxerpe	5-2

Sailkapena

5. Billabona KE	40p
6. Tolosa CF 'B'	39p

Hurrengo jardunaldia

Ast. Mundarro (3)-Tolosa CF 'B' (6)
S. Tom. Lizeoa (7)-Billabona KE (5)

LEHEN ERREGIONALA,

IGOERA FASEA

2. jardunaldia

Danena-Kostkas	2-1
----------------	-----

Sailkapena

3. Danena	3p
-----------	----

LEHEN ERREGIONALA, KOPA

2. jardunaldia

Antigua Luberrri-Intxurre	6-4
---------------------------	-----

Sailkapena

4. Intxurre	0p
-------------	----

GORENGO MAILA, KOPA

3. jardunaldia

Intxurre-Sporting de Herrera	4-0
------------------------------	-----

Sailkapena

3. Intxurre	6p
-------------	----

Hurrengo jardunaldia

S. T. Lizeoa (1)-Intxurre (3)

Eskubaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

23. jardunaldia

Dominicos Zarag.-Tolosa CF	26-33
----------------------------	-------

Sailkapena

2. Tolosa CF	40p
--------------	-----

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (2)-Romo Indupime (15)

Saskibaloia

LEHEN MAILA NAZIONALA

19. jardunaldia

San Cernin-Red. M. TAKE	36-87
-------------------------	-------

Sailkapena

4. Redline Mekanika Take	12-7
--------------------------	------

Hurrengo jardunaldia

Red. Mek. TAKE (7)-Ulacia Grup. (2)

GIPUZKOAKO LEHEN MAILA

17. jardunaldia

TAKE-Eskoriatza	67-42
-----------------	-------

Sailkapena

8. TAKE	7-10
---------	------

Altunarekin berriro ere matematikei begira

Binakako Pilota Txapelketan, Altunak eta Martijak galdu egin dute finalerdietako lehen jardunaldian

Erredakzioa

Binakako Pilota Txapelketako finalerdiak asteburuan hasi ziren. Jokin Altunak Martijarekin batera 22-16 galdu zuen Irribarria-Zabaleta bikotearen aurka. Hurrengo jardunaldian Victor-Albisu izango dituzte aurkari, beste norgehiagokan Elezkano II-Rezustaren aurka galtzaile izandakoak. Altunak eta Martijak aukerak dituzte finalerako sailkatzeko. Finalerdietarako sailkatzeko zein aukera zituzten jakiteko matematika erabili bazen, orain ere berdina egitea egokitzen da.

Altuna-Martijak eta Irribarria-Zabaletak irabazten badute, azken hauek finalera doaz, eta azken jardunaldiko Altuna-Martija eta Elezkano-Rezusta arteko irabazleak izango dira beste finalistak. Asteburu honetan Altuna-Martijak irabaziz gero eta Elezkano-Rezustak ere bai, dena geratuko da airean azken jardunaldirako. Altuna-Martijak galdu eta Elezkano-Rezustak irabaziz gero, finaletik kanpo geratuko litzateke amezketarra. Eta Altuna-Martijak galdu eta Irribarria-Zabaletak irabaziz gero, dena geratuko da airean azken jardunaldirako.

AURRERA-TOLOSA, GARAILE

Eskuz binaka ere, baina Euskal Ligan eta kadete mailan, Aurrera-Tolosako Amiano eta Sudupe pilotariek txapela jantzi zuten



Amiano eta Sudupe Aurrera-Tolosa elkarteko pilotariak, txapelekin. ATARIA

Amezketan asteburuan jokatu-tako finalean. 22-19 irabazi zioten Mundarro klubeko Lizeaga-Lizeaga bikoteari.

Ainhua Lakuntza adunarra Emakume Master Cup-eko finalean izango da

Erredakzioa Aduna

Gipuzkoarren arteko finala izango da hurrengo igandean Zumarragako Belokin jokatu den Laboral Kutxa Emakume Master Cup lehiaketaren promozio mailakoa, eta protagonistetako bat Ainhua Lakuntza adunarra izango da. Larunbatean, Legazpin jokatu ziren finalerdietan Maria Granado-Ainhua Lakuntza (Hernani-Aduna) eta Madalen Etxegarai-Uxue Osesek (Oñati) lortu zituzten Beloki pilotalekuan jokatuzko txartelak.

Sarrera ona izan zen larunbatean Urbeltz pilotalekuan. Partida onak ikusteko aukera izan zuten, gainera. Lehen finalerdian, Ane Mendiburu eta Laia Salsamendi uhartearek osatutako bikoteak alde polita lortu zuen hasieran, 5-0 aurreratuta, baina ez zuten errenta hori behar bezala kudeatzen jakin. Maria Granado eta Ainhua Lakuntza lehen aldiz aritu dira txapelketa honetan, baina azkar eman zioten buelta



Ainhua Lakuntza eta Maria Granado. MASTER CUP

egoerari. Partidaren erdi aldera gauzak oso orekatuak egon ziren, baina hamaikana berdindu ostean, gipuzkoarrek euren joa baliatu zuten oso bestelako partida bat marrazteko. Zuzenean joan ziren Hernaniko aurrelaria eta Adunako atzelaria 18. kartoi-18 (18-11), eta hurrengo igandean

Zumarragan egoteko txartela eskuratu zuten.

Hauek izan ziren finalerdietako emaitzak: Maria Granado-Ainhua Lakuntza 18, Ane Mendiburu-Laia Salsamendi 11; Madalen Etxegarai-Uxue Oses 18, Ainhua Ruiz de Infante-Nora Mendizabal 7.

Irurtzunek irabazi du Euskal Herriko txapela Beotibarren

Oberenak eta Irurtzunek jokatu dute V. Euskal Herriko Pilota Elkartearen Arteko Nazio Txapelketaren finala, Tolosako frontoian, ehunka pilotazalaren aurrean.

Erredakzioa Tolosa

Hiru mila euroko saria eta Euskal Herriko txapela irabazi zituen igandean Irurtzongo pilota elkarteak Beotibarren. Pilota elkartearen arteko nazio txapelketaren V. edizioaren finala jokatu zen Tolosan. Gorriz, Iruñeko Oberena; urdinez, Irurtzun. Lau eta erdian, buruz buru kantxa osoan eta binaka neurtu zituzten indarrak, eta azken emaitza 2-1ekoa izan zen.

Canabalek eta Olazabalek jokatu zuten lau eta erdiko partida. Oberenako ordezkariak 20 urte; Irurtzongoak 33. Beteranoa hasi zen egurrean, sake-errematean agintea hartuz. Jokaldi horrekin min handia egin zuen aresorarak; aurkariari eta bere buruari, hiru sake huts egin baitzituen. Canabalek hasieratik erakutsi zuen bere arma nagusia: defen-

tsa. Aurrena aurkaria nekatu zuen, ondoren zirrikitu guztiak itxi zituen eta azkenik tantoa bera hasi zen amaitzen. Gauzak horrela, Oberenak lortu zuen finaleko lehen puntua 18-13ko emaitzarekin.

Canabalek 10 tanto egin zituen, horietako bat sakez. Galdutako pilotak lau bakarrik izan ziren. Olazabalek ere 10 tanto egin zituen, horietako bi sakez. Galdutakoak, ordea, 8 izan ziren; horietako hiru, sakez pasa egin ondoren. Markagailuaren ibilera ondorengoa izan zen: 0-3; 1-3; 2-4; 3-4; 4-10; 11-11 eta 18-13.

Finaleko bigarren partida buruz burukoa izan zen, kantxa osoan. Oberenak Garciak jokatu behar zuen, baina eskuetako minnez zegoenez, Iruritak hartu zuen bere lekua. Urtebete lesioarekin egon ondoren itzuli zen kantxara Lanzekoa.



Bi elkarte finalistetako pilotariak, podiumean garaikurrekin. ATARIA

22 urteko atzelariaren aurkaria Ongay beteranoa izan zen. 33 urte ditu Satrustegikoak. Fabori-

to argia zen Irurtzongo ordezkaria, eta 18-6 irabazi zuen partida nahiko erraz. Iruritari ezin zaio

ezer kendu, ordea. Oberenakoak partida bikaina jokatu zuen, pilota guztiak gozatuz. Ongay, ordea, gehiago izan zen bai erasoan eta baita defentsan ere. Iruritak lau tanto egin zituen, bost hutsekin batera. Ongayk 13 egin zituen, horietatik sei sakez. Bi pilota besterik ez zituen galdu. Beteranoa, maisu eta finala bana.

Txapela, beraz, hirugarren partidan erabaki zen, binakakoa. Hemen ere Oberena beste aldaketa bat egin beharrean izan zen. Mata eskuetatik justu dabil eta bere ordezkari 17 urte dituen Oskoz jubenilak jokatu zuen. Bederatzi tanto egin zituen aurrelari gazteak, baina ez zen nahikoa izan. Irurtzongo bikotea beteranoa eta ofizio handikoa zen: Ollo-Bergera. Hasieran parean ibili baldin baziren ere, partidaren bigarren zatian lasaitasunez iritsi ziren 22ra Irurtzongoak.

2-1eko emaitzarekin, beraz, bosgarren edizioaren txapela Irurtzunera joan zen. Euskal Herriko Pilota Elkartearen Arteko Nazio Txapelketaren palmaresa horrela geratu zen atzokoan: Galdakaoko Adixkide (2015), Usurbilgo Pagazpe (2016), Tolosako Tolosa CF-Aurrera (2017), Amezketako Zazpi Iturri (2018), eta Irurtzongo pilota elkarteak (2019).

Joxe Barriolaren idiek irabazi dute Aiako Kintopeko proba

Erredakzioa Asteasu

Joxe Barriola asteasuarraren idi pareak irabazi zuen martxoaren lehen asteburuan jokatu zen Aiako XX. Kintopeko Idi Proba. Urrutia eta Telleria itzainek gidatuta, animaliek 58 plaza, 6 zin-

ta eta 40 zentimetro egin zituzten. Bigarren sailkatua Iñaki Lopategi izan zen, eta horren idiek 57 plaza, zinta bat eta 1,86 metro egin zituzten harriarekin. Hirugarren pareak, Iñaki Olidene-nak, 50 plaza, 5 zinta eta 0,60 metro egin zituen.

Hiru egunez aritu ziren Aiako probalekuan saioak eginez, eta guztira zazpi idi parek parte hartu zuten Kintopeko txapelketan. Guztien artean izan ziren onenak Barriolaren idiak eta berak eramane zituen manta preziatuak.



Urrutia, Barriola eta Telleria, lortutako txapelekin eta mantekin. IBONERRAZU

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO MARTXOAK 12
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



AZKEN ASTINDUAK

Piñata igandearrekin agurtu dira inauteriak. Zezen festa egon zen zezen plazan eta azken txaranga doinuak entzuteko aukera ere egon zen. Era berean, Tolosako Udalak banatu ditu karroza eta konpartsen lehiaketako sariak. Karrozen lehen saria Patxik jaso du; 25 lagun baino gehiagoko konpartsena Udazkenak; 12 eta 25 lagun bitartekoena Karthobenek; 6 eta 11 lagun bitarteko konpartsena Ezkontza erreportaiak; eta berdinzaleenaren saria Ake-larre. I.U.L.

ZORION AGURRAK



Zorionak Leire!

Tolosako Leirek martxoaren 8an 10 urte egin zituen, zorionak eta muxu asko etxeko guztien partetik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Mendi Tour 2019, 19:00etan, Leidorren.

Zizurkil. Emakume zirkulua osatzeko topaketa 19:00etan, Iriarte etxean. Energia femeninoa berreskuratu eta ospatzea da helburua.

Tolosa. Zinegoak 19:30ean, Topic zen-troan.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea

Gaur. Egunak bizati ezberdin izango ditu. Goizean hegomendebaldeko haizearekin giro lasai eta epela izango dugu. Zeruan hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, giro argia izango da eta tenperatura 17-19 gradu bitartean errendituko da, baztertu gabe Tolosaldeko txorikik beroenetan 20 gradura iristea. Arratsaldeko lehen ordutik aurrera haizeak ipar-mendebaldera egin eta fronte bat iritsiko da. Frontea arratsalde erdian sartuko da eta orduan hasiko du euritan, tarteka zaparrada mardulak botaz. Frontea sartzean asko hoztuko du eta egun amaieran elurra 1.000 metrotan kokatuko da.

Bihar. Negu ukituko giroa. Egun guztian zehar ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean giro iluna izango dugu. Euri zaparradak nagusi izango dira, non mardulenak eta gehien egunaren lehen zatian botako dituen. Arratsalde partean zertxobait ahulagoak eta tartekatuko izango dira, baina ez du atertzea lortuko. Tenperatura asko

jaitziko da eta maximoak eguneko erdiko orduetan 7-9 gradu bitartean kokatuko da, hau da, aurreko egun baino 10 gradu beherago. Elur-maila 800 metrotan kokatuko da.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eguneko albisteak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, Joseba Landa Bartzelonatik, Joanes Karrera arkeologoa eta Aintzane Artolaren errezeta.

12:00-13:00. Entzuteko jaiak.

16:00-18:00. Zebraidea.

18:00-20:00. Goizeko onena.

20:00-20:30. Kokondo.

Oskar Tena-ren musika saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

16:30. 1,2,3 Hemen da Miru!

17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. Ireki Kaxa (Amaia Arranz).

22:30. Elkarriketap.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran.

Kale Nagusia, 7.

Telefono zenbakia: 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.

Amarotz auzoa, 9.

Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Inauterietako argazki lehiaketa

'Opari Bonu Orlegia'
Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia: logela eta gosariekin, edo apartamentuan Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90
Epaimahajaren saria

Lau pertsonarentzako otordu bat Isastegi sagardotegian
Aldaba txiki auzoa, Tolosa
• 943 65 29 64 • isastegi.com
ataria.eus/eko-erabiltzaileen-saria

Bi Mahala saski baserriko produktuekin
Lehiaketan parte hartzen duten Atarikideen artean zozkatuko
Mahala baserria, Leaburu • 943 670 724
atarikideen.saria